

**Lankidetza Hitzarmena
Acuerdo de Colaboración**

Irungo Udalaren eta
Kutxabanken artean

entre **Ayuntamiento de Irun**
y **Kutxabank**

**Kutxabanken lokaletan Udalaren Herritarrak
Atenditzeko Zerbitzuaren autozerbitzu terminalak
jartzeko**

**Para la instalación de terminales de autoservicio del
Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento en
locales de Kutxabank**

2019ko uztaila / julio 2019

IRUNGO UDALAREN ETA KUTXABANKEN ARTEKO AKORDIOA KUTXABANKEN LOKALETAN IRUNGO UDALAREN HERRITARRAK ATENDITZEKO ZERBITZUAREN (HAZ) AUTOZERBITZU TERMINALAK JARTZEKO	ACUERDO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE IRUN Y KUTXABANK PARA LA INSTALACIÓN DE TERMINALES DE AUTOSERVICIO DEL SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA (SAC) DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN EN LOS LOCALES DE KUTXABANK
EXP. 2019PROC0003	

Irunen, 2019ko uztailaren 24an

En Irun, a 24 de julio de 2019

BILDURIK

Alde batetik, José Antonio Santano Clavero jaun txit prestua, **Irungo Udaleko** Alkate-Lehendakari gisa.

Kutxabank, S.A. eta haren izenean eta ordezkari gisa Ainhoa Arruabarrena Elorza andrea, adin nagusikoa, Gipuzkoa Sareko Zuzendari gisa, 2011ko abenduaren 22an Bilboko notario Vicente Maria Del Arenal Otero jaunaren aurrean (protokolo zenbakia 1759) emandako Ahalordetze eskritura oinarri hartuta.

PARTE HARTU DUTE

Guztiek nork bere karguko eginkizunak betez, elkarri Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortuz eta sinatzeko adostasuna azalduz, eta horretarako,

REUNIDOS

De una parte, el Ilmo. Sr. D. José Antonio Santano Clavero, en su calidad de Alcalde-Presidente del **Ayuntamiento de Irun**.

Kutxabank, S.A. y en su nombre y representación D^a Ainhoa Arruabarrena Elorza, mayor de edad, en calidad de Directora de la Red Gipuzkoa, en base a la Escritura de apoderamiento otorgada en fecha 22 de diciembre del 2011 ante el Notario de Bilbao, D. Vicente Maria Del Arenal Otero, con el número 1759 de su protocolo.

INTERVIENEN

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad de otorgar el presente Acuerdo y mostrando su conformidad para suscribirlo a tal efecto,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGO.- Irungo Udalak, herritarrei kalitatezko arreta zerbitzua eskaintzeko ahalegin etengabea, hainbat ekimen garatu ditu pertsonak eta erakundeek beren tramiteak eta kudeaketak erraz egin ditzaten, eta hainbat bide erabiltzen ditu horretarako. Horietako bat autozerbitzuko terminalen sarea da, hirian HAZen zerbitzuak zabaltzen dituen ordutegietan eta banaketa geografikoan.

BIGARREN.- Autozerbitzu terminal horiek Irungo auzoetara hurbiltzeko, 2008ko urtarrilean akordio bat sinatu zuen Kutxa, S.A.rekin, hiriko bulego batzuetan zerbitzu hori ezartzeko. Akordio hark adierazten zuen bi erakundeek partekatzen dutela beren bezeroen eta erabiltzaileen asebetetzea hobetzeko sistemak etengabe ezartzeko asmoa.

HIRUGARREN.- Kontuan izanik sinatu zen akordio haren aleak ez daudela eskuragarri bi erakundeetan aldaketa handiak izan direlako, Irungo Udalaren Informazioaren Gizartea, Herritarren Parte hartzea eta Auzoak Arloak, Udaleko herritarren arretarako zerbitzuak bultzatzen eta kudeatzen dituen izanik gaur egun, dokumentu berriak sinatu nahi ditu, eta aldi berean, 2008an sinaturiko akordioaren terminoak eguneratu.

LAUGARREN.- Kutxabanken nahiz Irungo Udalaren iritziz, guztiz interesgarria izaten jarraitzen du lankidetzarako ekimen honek eta egokitzat hartzen dituzte hasierako akordioaren baldintza nagusiak. Nolanahi ere, eguneratu egin behar da bi erakundeen eta terminalen banaketaren egungo egoera behar bezala jasotzeko. Horrenbestez, honako klausula hauek adosten dituzte:

EXPONEN

PRIMERO.- Que el Ayuntamiento de Irun, en su objetivo permanente de ofrecer un servicio de atención a la ciudadanía de calidad, ha venido desarrollando diferentes iniciativas para facilitar a personas y entidades sus trámites y gestiones, utilizando para ello diferentes canales. Uno de ellos es la red de terminales de autoservicio, que amplía los servicios del SAC en horarios y distribución geográfica en la ciudad.

SEGUNDO.- Que, con el fin de acercar a diversos barrios de Irun estos terminales de autoservicio, firmó en enero de 2008 un acuerdo con Kutxa, S.A., para la instalación de este servicio en algunas de sus oficinas de la ciudad, acuerdo que ponía de manifiesto que las dos Entidades compartían su vocación por la adopción permanente de sistemas que mejoren la satisfacción de sus clientes y usuarios.

TERCERO.- Que, dándose la circunstancia de que los ejemplares firmados de aquel acuerdo, debido a los profundos cambios habidos en las dos Instituciones, no se encuentran disponibles, desde el Área de Sociedad de la Información, Participación Ciudadana y Barrios del Ayuntamiento de Irun, actualmente impulsora y gestora de los servicios de atención ciudadana del Ayuntamiento, se promueve la firma de nuevos documentos que sustituyan, y actualicen a su vez, los términos del acuerdo firmado en 2008.

CUARTO.- Que tanto Kutxabank como el Ayuntamiento de Irun siguen considerando de pleno interés esta iniciativa de colaboración y valorando como adecuados los principales términos del acuerdo inicial, si bien procede una actualización que recoja adecuadamente la situación presente de ambas Entidades y de la distribución de los terminales, acordando así las siguientes:

KLAUSULAK

1 Kokalekuak

Elkarren arteko akordioz erabaki da hasiera batean Kutxabanken 2 bulegotan jartzea Udalaren ekipamenduak. I. eranskinean jasota daude bulego horien zerrenda eta helbidea.

Kutxabankek proposatuko du bulegoen barnean makina horiek non jar daitezkeen, eta bi aldeen artean adostuko dituzten behin betiko kokalekuak.

2. Jartzea eta erretiratzea

Udalaren kontura izango dira makinak garraiatzeko eta instalatzeko gastuak.

Datuen lineak Udalak kontratatuko ditu zuzenean.

Bulegoaren barnean datuen eta indarren lineen instalazioa, hala badagokio, Kutxabanken obra eta instalazio sailak kudeatuko du. Kutxabankek aldeaz aurretik jakinaraziko dio Udalari lokalen barnean kable beharretatik etorritako kostuak zenbatekoak diren. Kontzeptu horren fakturak zuzenean Udalari fakturatuko dizkio Kutxabankek indar eta datuen lineen hartuneen instalazioa egiteko hartu duen enpresak.

Udalak makinaren nahiz haietan eskaintzen diren zerbitzuen seinaleak jarri ahal izango ditu barruan nahiz kanpoan, hala badagokio, Kutxabankek aldeaz aurretik baimena idatziz

ESTIPULACIONES

1ª Ubicaciones

Se establece de común acuerdo una primera relación de 2 oficinas de Kutxabank donde se instalarán los equipos del Ayuntamiento. El Anexo I recoge la relación y dirección de estas oficinas.

Kutxabank propondrá los posibles puntos de colocación de las máquinas en el interior de las oficinas, y ambas partes acordarán los puntos definitivos.

2ª Instalación y retirada

Los gastos de transporte e instalación de las máquinas serán por cuenta del Ayuntamiento.

Las líneas de datos serán contratadas directamente por el Ayuntamiento.

La instalación de las líneas de datos y de fuerza dentro del espacio de la oficina, serán en su caso, gestionadas desde el departamento de obras e instalaciones de Kutxabank. Kutxabank informará previamente al Ayuntamiento de los costes derivados de las necesidades de cableado en el interior de locales. El importe de las facturas por este concepto será facturados directamente al Ayuntamiento por la empresa a la que Kutxabank haya encargado la instalación de las tomas de las línea de fuerza y datos.

El Ayuntamiento podrá colocar señalización interna y externa, en su caso, previo consentimiento por escrito de Kutxabank tanto de las máquinas en sí como la de los

emanda. Bulegoaren osotasunean estetika aldetik desitxuratzetik eragin ez dadin, seinale horiek Kutxabankek estandarizatuak dituenekin bat etorri beharko dute elementuei eta elementu horien tamainari dagokienean. Bi aldean artean erabakiko dute behin betiko diseinua.

Hitzarmen honen indarraldia bukatutakoan, edozein direla ere amaitzeko arrazoiak, Udalak ekipamenduak eta, hala badagokio, barneko nahiz kanpoko seinaleak, horrelakorik badago, ahalik eta azkarren erretiratzeko konpromisoa hartzen du, eta betiere, Hitzarmena amaitzen denetik hilabeteko epea igaro baino lehen.

Ekipamenduak eta seinaleak erretiratzetik etorrirako gastu guztiak, edozein dela ere haien izaera, Udalaren kontura izango dira.

3. Mantentzea

Jarritako ekipamenduak erabilera baldintza egokietan eta garbi edukitzeko konpromisoa hartzen du Udalak, hala hardwarea nola softwarea, dagokion administrazio kontratuaren esleipendun suertatzen diren enpresa espezializatuen bidez. Gaur egun AXIALTIC, S.A. da enpresa esleipenduna.

Udalak edo, hala badagokio, jarritako ekipamenduen mantentze lanen enpresa esleipendunak, mantentze eta konpontze zerbitzuak emateaz arduratzeko izendatu dituen langileen identifikazio datuak jakinaraziko dizkio Kutxabanki erakundearen lokaletan eta aretoetan sartu behar izateko ageriko arrazoiengatik, eta hasieran izendatutako langileak aldatzen baditu ere

servicios ofrecidos en las mismas. Con el objetivo de no provocar distorsiones estéticas en el conjunto de la oficina, dicha señalización deberá estar en línea en cuanto a elementos y al tamaño de los mismos con los que Kutxabank tiene estandarizados. El diseño definitivo se acordará entre ambas partes.

Finalizado el plazo de vigencia del presente Convenio, con independencia de las causas que hubieren originado su finalización, el Ayuntamiento se compromete a retirar los equipos y, en su caso, las señalizaciones internas y externas si las hubiere, a la mayor brevedad posible y, en cualquier caso, antes de transcurrido un mes desde la finalización del Convenio.

Cualquier gasto que se derive de la retirada de los equipos y señalización, con independencia de su naturaleza, serán por cuenta del Ayuntamiento.

3ª Mantenimiento

El Ayuntamiento se compromete a mantener los equipos instalados en un nivel correcto de uso tanto del hardware como del software y limpieza, a través de empresas especializadas que resulten adjudicatarias del correspondiente contrato administrativo. En la actualidad la empresa adjudicataria es AXIALTIC, S.A.

El Ayuntamiento o, en su caso, la empresa adjudicataria del mantenimiento de los equipos instalados, deberá poner en conocimiento de Kutxabank los datos de identificación del personal que asigne a la realización de los servicios de mantenimiento y reparación por evidentes razones de acceso a los locales y dependencias de la entidad, así como poner en su conocimiento la sustitución

horren berri eman beharko dio, bulego horietan lehen aldiz lan egin baino 24 ordu lehenago gutxienez. Langile horiek behar bezala identifikatuta joan behar dute Kutxabanken instalazioetara eta Udalaren edo, hala badagokio, enpresa esleipendunaren betebeharra izango da bere zerbitzuan ari diren langileak bere kontura informatu, zaindu eta kontrolatzea Kutxabanken bulegoetan lanean ari diren orduetan.

Udalak edo, hala badagokio, enpresa esleipendunak egokitzat hartzen duen erregimenean kontratatuko ditu bere betebeharrei erantzuteko beharreko langileak. Langile talde hori Udalaren eta/edo enpresa esleipendunaren mende egongo da soilik, eta horrenbestez, horiek ugazaba enplegatzaile gisa dituzten eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte eta lan, soldata, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiene alorretan indarrean dauden baldintza guztiak bete beharko dituzte beren kargu dauden langileei dagokienez, eta Kutxabankek langile horiengan ez du izango inolako antolakuntza, zuzendaritza edo zaintza ahalmenik.

Udalak eta/edo enpresa esleipendunak zerbitzu honetarako jartzen eta erabiltzen dituen langileek ez dute inolako eskubiderik izango Kutxabanki dagokionean, soil-soilik Udalaren eta/edo, hala badagokio, enpresa esleipendunaren mende egongo baitira, eta hark, bere antolakuntza gaitasunaren barnean, bere egiten du, haiei dagokienez, indarrean dagoen edo aurrerantzean ematen den legeriatik etorritako enpresa arriskua. Langile horiei istripuren bat edo beste edozein eratako kalterik gertatzen bazaie, beren eginkizunen ondorioz edo beren lanetan ari direla, Udalak eta/edo enpresa esleipendunak, dagokionak, indarrean

del personal inicialmente asignado, con al menos 24 horas de antelación a su primera intervención en dichas dependencias. Dicho personal deberá acceder a las instalaciones de Kutxabank debidamente identificado y será obligación del Ayuntamiento o, en su caso, la empresa adjudicataria informar, vigilar y controlar por su cuenta a todo el personal a su servicio durante las horas en que se realiza su intervención en las dependencias de Kutxabank.

El Ayuntamiento o, en su caso, la empresa adjudicataria deberá contratar en el régimen que a su juicio sea conveniente, al personal necesario para atender a sus obligaciones. Tal colectivo dependerá exclusivamente del Ayuntamiento y/o la empresa adjudicataria, por lo que éstos tendrán todos los derechos y deberes inherentes a su calidad de patrono empleador y deberá cumplir las disposiciones vigentes en materia laboral, salarial, de seguridad social y de seguridad e higiene en el trabajo referidas al propio personal a su cargo, no reservándose Kutxabank facultad alguna de orden organizativo, de dirección o de vigilancia sobre dicho personal.

El personal que aporte y utilice el Ayuntamiento y/o la empresa adjudicataria para este servicio no tendrá derecho alguno respecto de Kutxabank, por depender única y exclusivamente del Ayuntamiento y/o la empresa adjudicataria, en su caso, la cual, dentro de su capacidad organizativa, asume en exclusiva respecto de ellos, el riesgo de empresa, que deriva de la legislación vigente o que en lo sucesivo se promulgue. En caso de accidente o perjuicio de cualquier género ocurrido a tales trabajadores, con ocasión o como consecuencia del ejercicio de sus cometidos, Ayuntamiento y/o la empresa adjudicataria, según proceda, cumplirá lo

dagoen araudia beteko du bere erantzukizunpean, eta horretan Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango, langile horiengan ez baitu inolako zuzeneko kontrol ahalmenik.

Udalak Kutxabanki eman beharko dio Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean gerta daitekeen edozein enpresa esleipendun aldaketaren berri, bai eta Kutxabanken interesetan eragina duen edo haiek arriskuan jar ditzakeen beste edozein gorabeheraren berri ere.

Udalak hirugarrenen aurreko erantzukizun zibila bere gain hartzen du sor daitezkeen kalteen edo galeren aurrean, horiek instalatutako ekipamenduaren funtzionamendu txarrari egotz badakizkioke.

Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango makinaren mantentze lanetan, ez eta denboraren joanagatik edo bestelako arrazoiengatik, esate baterako, bandalismo ekintzak edo uholdeak, suteak eta abar, gerta daitezkeen hondamenen aurrean eta haiekin loturiko elementuak berritu behar direnean eskainitako zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko.

Ekipamendu horiek erabiltzeko ordutegia Kutxabankek bulego bakoitzeko autozerbitzu gunea erabiltzeko une bakoitzean ezarri duena izango da.

Kutxabankek konpromisoa hartzen du zazpigarren klausulan jasotako Udalaren kontaktuari ahalik eta azkarren emateko Udaleko mantentze zerbitzuen esku hartzea behar duen edozein egoera edo gorabeheraren berri.

dispuesto en la normativa vigente bajo su responsabilidad, sin que ésta alcance en modo alguno a Kutxabank, que no tendrá facultad alguna de control directo sobre dicho personal.

El Ayuntamiento comunicará a Kutxabank cualquier cambio de empresa adjudicataria que, en su caso, pudiera darse durante la vigencia del presente Convenio así como cualquier incidencia que pudiera afectar o comprometer los intereses de Kutxabank.

El Ayuntamiento asume la responsabilidad civil frente a terceros por posibles daños o perjuicios que pudieran ocasionarse y fueran imputables a un mal funcionamiento del equipo instalado.

Kutxabank no será ningún caso responsable del mantenimiento, ni de posibles deterioros, ni de la reposición de ningún elemento asociado a las máquinas que, por el transcurso del tiempo o por causas ajenas, como actos de vandalismo o inundaciones, incendios, etc., pudieran requerirse para la continuidad del servicio ofrecido.

El horario para el acceso a los equipos será el que Kutxabank tenga establecido en cada momento para el espacio de autoservicio de cada una de las oficinas.

Kutxabank se compromete a comunicar al contacto del Ayuntamiento recogido en la estipulación séptima, y con la mayor celeridad, cualquier situación o incidente que requiera la intervención de los servicios de mantenimiento del Ayuntamiento.

4. Hornigaiak

Indar hornidura izan ezik, jarritako ekipamenduak behar duen beste edozein hornigai, nahiz seinaleztatze elementuak aldatzea, Udalaren erantzukizunpekoak eta haren kontura izango dira.

5. Bulegoak aldatzea edo instalazio berriak

Bulegoak ezartzeko politikan izandako aldaketen ondorioz edo beste edozein arrazoiengatik Kutxabankek bulegoak itxi behar baditu edo haien diseinua aldatu behar badu eta makinarentzat ezin bada kokaleku egokirik aurkitu, Kutxabankek ukituriko makina erretiratzeko eskatu ahal izango dio Udalari, eta gehienez ere hilabete bateko epea izango du horretarako, jakinarazten zaion egunetik aurrera kontatuta.

Makina baten edo batzuen erabilera mailak ez badu justifikatzen haiek lekuan mantentzea, Udalak edozein unetan jakinarazi ahal izango dio Kutxabanki, hilabete bat lehenago ohartarazita, ukituriko makinak erretiratu behar dituela.

Akordio honen esparruaren barnean, Udalak Kutxabanki makina berriak jartzea proposatu ahal izango dio, bulego berriak ireki izanagatik edo obrak egin izanagatik, egokitzat hartzen den bulegoetan, bi aldeentzat komenigarria bada makina berria jartzea. Era berean, Udalak, Kutxabankek eskatuta, udal bulegoetan Kutxabanken autozerbitzu ekipamenduak jartzeko aukera aztertu ahal izango du, haien funtzionaltasunen eskaintza Irungo herritarrentzat interesgarria bada.

4ª Suministros

Salvo el suministro de fuerza, cualquier otro suministro que requiera el equipo instalado, así como la reposición de los elementos de señalización, serán responsabilidad e irán por cuenta del Ayuntamiento.

5ª Modificación de oficinas o nuevas instalaciones

Si, como consecuencia de cambios en la política de implantación de oficinas o por cualquier otra causa, Kutxabank se viera obligada a cerrar o alterar el diseño de las oficinas y no se pudiese encontrar una ubicación alternativa adecuada, Kutxabank podrá solicitar al Ayuntamiento la retirada de la máquina afectada, para lo cual dispondrá de un plazo máximo de 1 mes desde la fecha de comunicación.

Si el nivel de utilización de una o varias máquinas no justificase el mantenimiento de las mismas, el Ayuntamiento podrá, en cualquier momento, comunicar a Kutxabank, con un preaviso de un mes, la retirada de la/s máquina/s afectada/s.

Dentro del marco del presente acuerdo, el Ayuntamiento podrá interesar a Kutxabank por la colocación de nuevas máquinas en aquellas oficinas donde, bien por nuevas aperturas o por la realización de obras, pudiera ser oportuno y conveniente para ambas partes la colocación de una nueva máquina. De la misma manera, el Ayuntamiento se ofrece a considerar, a petición de Kutxabank, la posible ubicación en dependencias municipales de equipos de autoservicio de Kutxabank, cuya oferta de funcionalidades pudiera ser interesante para los ciudadanos de Irun.

6. Iraupena

Hitzarmen honek 1 urte iraungo du. Hala ere, berau automatikoki berritu ahal izango da urtebeteko denboraldiez 4 urtez gehienez. Aldeetako edozeinek besteari hitzarmena beste denboraldi batez ez berritzeko eskatu ahal izango dio 2 hilabete lehenagotik jakinarazita.

6ª Duración





El presente acuerdo tendrá una duración de 1 año. No obstante, se establece la renovación automática del mismo por periodos anuales hasta un máximo de 4 años. Cualquiera de las partes podrá solicitar a la otra la no renovación del mismo para un nuevo periodo, con una antelación de 2 meses.

7. Harremanetarako sailak.

Bi aldeek ondoko harremanetarako sail hauek ezarri dituzte beste aldeari akordio honekin loturiko edozein konturen berri emateko

7ª Departamentos de Contacto.

Ambas partes establecen los siguientes departamentos de contacto para comunicar a la otra parte cualquier cuestión relacionada con el presente acuerdo

Gaia edo arrazoia / Tema o motivo	Udala / Ayuntamiento	Kutzabank
Hitzarmenari dagokionean	 Informazioaren Gizartea, Herritarren Parte Hartzea eta Auzoak arloko zuzendaritza. Dirección de Sociedad de la Información, Participación Ciudadana y Barrios jarranz@irun.org	 Irungo Udalaren kudeatzailea Gestor Ayuntamiento de Irun. udalagipuzkoa@kutzabank.es
Instalazioak	 Informatika zerbitzua Servicio de Informática informatica@irun.org	obras@grupokutzabank.com
Mantentzea	 Informatika zerbitzua Servicio de Informática informatica@irun.org	obras@grupokutzabank.com



Hitzarmen hau irakurri ondoren, beronen edukia berresten eta baieztatzen dute parte hartzaileek, eta adostasunaren erakusgarri, sinatu egiten dute, adierazitako lekuan eta egunean.

Tras la lectura del presente Acuerdo, los otorgantes se ratifican y afirman en su contenido y, en prueba de su conformidad, lo firman, en el lugar y fecha indicados.

**IRUNGO UDALA /
AYUNTAMIENTO DE IRUN**
Alkate-Lehendakaria / El Alcalde-Presidente

Kutxabank
Gipuzkoa Sareko Zuzendaria / Directora de la
Red Gipuzkoa

Sin./Fdo.: **José Antonio Santano Clavero**

Sin./Fdo.: **Ainhoa Arruabarrena Elorza**

**I. ERANSKINA / ANEXO I:
Irungo Udalaren autozerbitzu terminalak jartzeko lekuak / Puntos para la
instalación de los terminales de autoservicio del Ayuntamiento de Irun.**

Kutzazain / Cajero - IRUN VENTAS
ANDREARRIAGA 6, 2. LOKALA
20305 - IRUN

Bulegoa / Oficina 5128 - IRUN ANAKA
ANAKA, 40
20301 - IRUN